





Doraemon itsasoan

Doraemon eta hego itsasoetako piratak filma ikusgai da euskaraz, jadanik, Euskal Herriko hainbat zinematan

Doraemon katu kosmikoak, Nobitak, Shizukak, Gianek eta Suneok itsaso zabalean barna nabigatuko dute *Doraemon eta hego itsasoetako piratak* filmean. Luk Internacional produkzio etxearen filma ikusgai dago Donostiako Bretxa, Gasteizko Yelmo Gorbeia, Basauriko Bilbondo, eta Usurbilgo Lauren zinemetan.

Eskolan itsasoari buruzko lan bat egin behar dutela eta, Nobitak Doraemoni laguntza eskatzen dio. Hala, Doraemonen poltsiko magikoari esker, itsaso zabalera bidaiatuko dute. Akats larri baten erruz, ordea, XVII. mendera bidaiatuko dute. Ekaitz izugarri baten harrapatuko ditu itsasoaren erdian.

Noraezean dabilzala, itsasontzi pirata ba-

tekin egingo dute topo. Itsasontzian, besteak beste, Kid kapitaina eta Betty doaz, itsasoan galdutako Corto kapitain, Jack eta tripulazioko kideen bila. Piratek guztiak salbatuko dituzte, Nobita izan ezik; hau itsasoan galdu, eta Tomoe uhartera helduko da. Bertan, Jack ezagutuko du. Jack ere bakarrik dago, hondoratzearen ondorioz, tripulazioko kideak galdu baitira.

Doraemonek, bere lagunak eta piratek Jack eta Nobita topatuko dituzte. Baina, uhartean Corto kapitaina eta beste kideen bila dabilzala, Cassh maltzurak eta Crone doktoreak zuzentzen duten lantegi bat aurkituko dute. Bertan, munstro izugarriak egiten dituzte herritarrak izutzeko. Gure lagunak ze-

regina lantegia suntsitzea izango da. Ez da zeregin erraza izango, baina lortuko ote dute?

Telebistako protagonista

Doraemon katu kosmikoaren abenturak oso ezagunak dira, telebistako hainbat katetan haren marrazki bizidunak eskaintzen baitituzte, baita ETB1n ere. Bere sortzailea Hiroshi Fujimoto da. Doraemonen istorioetan ametsak, mundu berriak ezagutzeko nahia, laguntasuna eta umorea nagusitzen dira. Doraemonek poltsiko magiko bat du, eta horren laguntzaz, asmakizun ezohikoak eta bitxiak sortzen ditu, Nobitaren gutziak asez.

badakizu...

Nola sortzen dira kraterak? Non daude?

Meteoritoek, lurrera erortzen direnean, kraterak sortzen dituzte. Arizonan (AEB) bada krater handi bat: 1.265 metroko diametroa du, eta duela 25.000 bat urte sortu zen. Hala ere, hori ez da ohikoena. Izan ere, meteoritoek lurrean sortzen dituzten krater

gehienak berriro bete eta desagertu egiten dira denborarekin. Beste hainbat lekutan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Ilargian, Merkurioren, Martitzen eta Jupiterren, esaterako, meteoritoek sortutako hamaika krater aurki daitezke.

